GERNIKA-LUMOKO UDALA
Hezkuntza Saila eta
Euskera Zerbitzua

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA (HPS)

BFA
DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

GERNIKA-LUMO • 2008 URTEA • BIK - Zazpigarren Idazlan Koadernoa • LEHEN HEZKUNTZA



GERNIKA-LUMO
2008
urtea

Lehen
Hezkuntza

# ZAZPIGARREN IDAZLAN KOADERNOA

GERNIKA-LUMO
2008 urtea

# ZAZPIGARREN IDAZLAN KOADERNOA

Lehen Hezkuntza

**Argitaratzailea:**

- Gernika-Lumoko Euskera Zerbitzua eta Hezkuntza Saila

**Laguntzaileak:**

- Seber Altube Ikastola.
- Allende Salazar Ikastetxea.
- Mertzede Ikastetxea.
- San Fidel Ikastola.
- Barrutia Eskualde Ikastetxea.

**Portadaren egilea:**

- Ariane Arrien (DBH 4. mailako ikaslea)

**Babesleak:**

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila (HPS)
- Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila (Euskera Zuzendaritza)

**Maketa eta Inprimaketa:**

- BEREKINTZA

**2008ko edizioa**

# HITZAURREA

Ehun urte barru liburu hau eskuetan hartzen dauanak, jakingo dau Gernika-Lumon baegozala 2008. urtean ipuinak idazten ebezan ikasleak, polito idatzi be. Eta hareen belarrietara zuzenketak xuxurlatzen eutziezan irakasleak ere baegozala. Eta guztiak herriko ikastetxeetan aritzen zirala.

Ehun urte barru horrelako ekintzak oroitzapen bat baino izan ez daitezan aurkezten deutsugu bilduma hau. Irakurtzeak arrastoa izten daualako irakurlearengan. Baita idazlearengan be. Zuk gehiago irakurri nahiko dozu eta idazleak gehiago emon beharko deutsu.

Hauxe, irakurle, Zazpigarren Idazlan Koadernoa dozu: herri honetako ikasleek sortua, irakasleek zuzendutakoa, eta guztiontzat zabaldua. Bagoaz guztion artean osatutako katea luzatzen. Ea amaigabe bihurtzen dogun. Izan zaitez, zu be, katebegi.

Iñaki Gorroño Etxebarria
Hezkuntza Arloko Zinegotzia



Idoia Fernández Antia
Euskera Arloko Zinegotzia



# AURKIBIDEA


| | | | |
|---|---|---|---|
| MAIDER GONDRA SAGREDO | L.H. 1. zikloa | Sorgin zintzoa | 5 |
| IZASKUN IZAGIRRE URIZAR | L.H. 1. zikloa | Mendi tontorra | 6 |
| IRATI ITURBE ORDORIKA<br>CARLOTA URIARTE REVUELTA | L.H. 1. zikloa | Bi bikiak | 7 |
| JULEN ARMAOLEA<br>KERMAN DE LA FUENTE | L.H. 1. zikloa | Erregina eta sorgina | 8 |
| NEREA ZENIGAONAINDIA NARBAIZA | L.H. 1. zikloa | Sorgin zintzoa | 9 |
| MIKEL ESKIBEL LAPRESA | L.H. 1. zikloa | Tximinoaren herria | 11 |
| ANARTZ URIBARRI | L.H. 1. zikloa | Periko astoa | 13 |
| JANIRE URKAREGI | L.H. 1. zikloa | Golosin kapitaña | 14 |
| ANDER BARANDIKA URRUTIA | L.H. 1. zikloa | Baso iluna | 15 |
| PAÚL ABERASTURI AKAITURRI | L.H. 1. zikloa | Mikelen abenturak | 17 |
| AITOR ARRIOLA ORIOSOLO<br>ASIER GORDO BADIOLA | L.H. 2. zikloa | Piramidean galduta | 19 |
| LEIRE OLAETA ZUBIAGA<br>ANE OBIETA SALEGI | L.H. 2. zikloa | Altxor ezkutua | 21 |
| UXUE LEJARZEGI URKIZA | L.H. 2. zikloa | Lorito berria | 23 |
| MIREN INTXAUSTI EREÑO | L.H. 2. zikloa | Tximinia | 25 |
| MADDALEN OMAETXEBARRIA LANDA | L.H. 2. zikloa | Ipuin lehiaketa | 28 |
| AMAIA GEREKIZ ASTEINZA | L.H. 2. zikloa | Lena zapata garbitzailea | 30 |
| JOSEBA ARÉVALO GANDARIAS | L.H. 2. zikloa | Arraunlariak itxasoan | 33 |
| HODEI GABIOLA ARANGÜENA | L.H. 2. zikloa | Perretxikoen herria | 35 |
| CARLOS ISLA MARAÑÓN | L.H. 2. zikloa | Arratoia eta lehoia | 37 |
| AMAIA ASLA URRUTIA | L.H. 2. zikloa | Elurretako inuita | 39 |
| NAROA AMÉZAGA VÉLEZ | L.H. 3. zikloa | Pozaren bila | 41 |
| AGURNE ASATEGUI CARRACEDO | L.H. 3. zikloa | Berdintasuna | 45 |
| BINGEN CARBÓ BASTERRETXEA | L.H. 3. zikloa | Unibertsoan galduta | 48 |
| NEREA LANDAZABAL BARRENA | L.H. 3. zikloa | Itsasotik eguzki-sistemara | 51 |
| JULEN VILLAMIL BUSTINZA | L.H. 3. zikloa | Lore magikoa | 55 |
| IÑAKI GABIKAGOGEASKOA | L.H. 3. zikloa | Ihauteriak | 59 |
| ITSASNE FORURIA ASTEINZA | L.H. 3. zikloa | Bidaia sorgin herrira | 62 |
| KOLDO GEZURAGA SEIJIDO<br>ÁLEX BENGOETXEA ARÉVALO | L.H. 3. zikloa | Txapelduna txapeldun | 65 |
| IRATI ETXANIZ | L.H. 3. zikloa | Alfonbra magikoa | 68 |
| ARKAITZ SASTRE ALDANA | L.H. 3. zikloa | Munduari Begira | 71 |



## MAIDER GONDRA SAGREDO

**L.H. 1. zikloa**

### Sorgin zintzoa

**"Ipuinak irakurtzea eta lagunekin jolastea gustatzen zait"**

SORGIN ZINTZOA

Bazen behin sorgin zintzo bat mendian bizi zena.
Bere izena Klotilde zen.
Sudur puntan garatz handi bat zeukan eta bere
ilea beltza eta luzea zen.
Etxea oso zikina zeukan.
Egun batean perretxikoen bila joatea pentsatu zuen.
Hainbat perretxiko bilatu eta gero etxera joan
zen tarta bat egitera.
Perretxikoak pozoitsuak zirenez tarta jan
ondoren gaixotu egin zen. Egun batzuk pasatu
eta gero sorgina sendatu eta pozik bizi izan
zen.





## IZASKUN IZAGIRRE URIZAR

### L.H. 1. zikloa

### Mendi tontorra

**"Trikitixa jotzea, patinetan ibiltzea eta denborapasak egitea atsegin ditut"**



Mendi tontorra

Behin batean lagun talde bat mendira zihoala Eva eta Laura galdu egin ziren.

Halako batean ardi bat topatu zuten eta galdetu zioten.

-Zu, zertan zaude hemen?

-Ardi talde batekin galdu egin naiz.

-Ba, guri ere gauza bera gertatu zaigu.

Ba al dakizu nondik joaten den mendi tontorrera?

-Bai, hemendik bidetik joaten da.

-Eta zuek ikusi al duzue artalde bat?

-Bai han daude, ikusten al dituzu?

-Aa! bai, ikusten ditut.

Eta bakoitza bere bidetik joan zen.

Izaskun Izagirre



# IRATI ITURBE ORDORIKA
# CARLOTA URIARTE REVUELTA

## L.H. 1. zikloa

## **Bi bikiak**

**"Nik handitan botikaria izan nahi dut",**
**"Nik handitan sendagilea izan nahi dut"**

CARLOTA URIARTE REVUELTA
Nik handitan sendagilea izan nahi dut.

IRATI ITURBE ORDORIKA
Nik handitan botikaria izan nahi dut.

### Bi Bikiak

Bazen behin neskame bat andre-gizon gogaikarriekin bizi zena. Egun batean kalera irten zenean konturatu zen beraiekin neskatxa berdina zegoela. Biek batera esan zuten "Nola da zure izena?" Batek esan zuen "ni Irati naiz eta zu?" "Ni Carlota naiz." Iratin amarengana joan ziren, eta azaldu zien ahizpa bikiak zirela, euren aita hil zela eta txikitan Carlota desagertu zela. Biak parkera joan ziren eta katu txiki bat aurkitu zuten. Negarrez zegoen eta etxera eraman zuten. Gizon gogaikarriak esan zuen "nora katu zantar hori?" Carlotak esan zion katua ez dela zantarra, katuari jaten eman eta gizonak minik ez egiteko kalera eraman zuten. Euren ama aurkitu zuten eta katua ekarri zioten ama katua, eta neskak pozik bizi ziren.





# JULEN ARMAOLEA
# KERMAN DE LA FUENTE

**L.H. 1. zikloa**

## Erregina eta sorgina

**“Gehien gustatzen zaidana futbolera jolastea da”**

**“Surf egitea, plan jokatzea eta marraztea gustatzen zait”**

Kerman de la Fuente
Surf egitea, palan jokatzea eta marraztea gustatzen zait.

Julen Armaolea
Gehien gustatzen zaidana futbolera jolastea da

ERREGINA ETA SORGINA

Gaztelu handi batean errege maltzur bat bizi zen. Eta sorgin gaiztoaren gazteluan erregin polit bat bizi zen. Sorginak erregina kartzela batean eukitzen zuen. Erregin hura errege maltzurraren alaba zen. Soldadu asko saiatu ziren erregina handik ateratzen baina alferrik izan zen. Halako batean soldadurik onenak sorgina hil egin zuen, eta erreginari eskatu zion berarekin ezkontzeko. Erreginak baietz esan zion, baina erregeak ez zuen nahi. Halandaguztiz esan zion:



—Lehiaketa hau irabazten baduzu, nire alaba emango dizut.

Eta halan izan zen, lehiaketa irabazi zuen eta bere alabarekin ezkontzeko baimena eman zion.



Azkenik biak oso pozik bizi izan ziren.





## NEREA ZENIGAONAINDIA NARBAIZA

**L.H. 1. zikloa**

### Sorgin zintzoa

**"Nik handitan ileordera izan nahi dut"**

# SORGIN ZINTZOA

Anboto mendian Kattalin sorgina bizi da. Kattalin sorgin ona da, eta beti laguntzeko prest dago. Egunero Arrazolara bere erratz gainean joaten da. Bertako baserritarrek asko maite dute Kattalin.

Arrazolan ikastola txiki bat dago, bertan hamabost ume daude, eta Kattalin ikastola horretako andereñoa da.



Kattalinek sorginkeria onak erakusten ditu. Horrela umeek arazo bat dutenean, Kattalinek erakutsitako sorginkeriaren bat erabiltzen dute.

Gaur Mikel beranduago heldu da ikastolara eta Kattalineri aittittek oginako mina duela esan dio. Kattalinek sorginkeri bat kontatu dio. Mikel segituan bere baserrira joan da eta amatxori, Kattalinek emandako sorginkeriaren errezeta eman dio. Amak errezeta egin du eta aittitteri eman dio. Aittittek edan du eta oginako mina desagertu zaio. Mikel ikastolara oso pozik bueltatu da eta andereño Kattalineri eskerrak eman dizkio. Ume guztiak eta baserritar guztiak oso pozik daude Kattalin sorgin ona eta zintzoa delako.





## MIKEL ESKIBEL LAPRESA

### L.H. 1. zikloa

### Tximinoaren herria

**"Kirola asko gustatzen zaidanez, nagusitan futbolaria izatea gustatuko litzaidake"**

TXIMINOAREN HERRIA

Behin batean tximinoen herrian Monki bizi zen. Monki super heroitasuna ezkutatzen zuen baina bere anaia ere ez zen enteratu. Monki platanondotara joaten asko gustatzen zen, etxera bueltatzen zirenean herrira itzultzen ziren, eta platanoak herrikoen artean banatzen zituzten.

Beti herriko jende guztiari laguntzen ibiltzen zen.

Batzuetan, ura erreketatik ekartzen, beste batzuetan, menditik egurra ekartzen, edo janaria ekartzen.

Horregatik bere herrian, Monki, super heroia zen.

Egun batean Monki eta bere anaia oporretara joan ziren.



Orduan herrira lapurrak etorri ziren eta gauza guztiak artu zizkieten.

Monki eta anaia bueltatu zirenean, herri guztia kezkaz gora ikusi zuten.

Herrikideei, zer gertatu zen galdetu ondoren, erabaki zuten lehenengo herriko kanpantorra eta gero lapurrak bilatzea.

Herria Konpontzen zeudela lehoien aintzak aurkitu zituzten;
oso handiak ziren. Herrian bi anai oso handiak zeudenez,
euren etxera joatea erabaki zuten.
Etxeko atea jo zuten eta irekitzean ikusi zuten ostutako
gauzak etxe barruan zeudela.
Bi anaiak atxilotu egin zituzten eta ostutako gauzak jabeen artean
banatu zituzten.
Herri guztiak Manki eta anaiari eskerrak eman zizkioten.



Mikel Eskilel



## ANARTZ URIBARRI

### L.H. 1. zikloa

### Periko astoa

**"Marrazkiak egitea gustatzen zait"**

Periko astoa

Bazen behin asto txiki bat. Azalako herri txiki batean bizi zen eta Periko zuen izena. Egunero bere jabearekin lanean ibiltzen zen patatak soloetik eramaten.

Urte asko zituen eta gehiago kostatzen zitzaion bere lana egitea. Orduan, nagusiak txorizoak egiteko saltzea erabaki zuen

— Asto zahar honek ez du ezertarako balio, esaten zuen beti jabeak.

Periko triste jartzen zen hori entzuten eta egun batean ihes egitea erabaki zuen.

Hiru egun ibili ondoren, baserri batera iritsi zen

— Bai astoa polita! biok batera lasai biziko gara, esan zuen agureak.

Ordutik aurrera zoriontsu bizi ziren

Anartz Uribarri 2. maila





## JANIRE URKAREGI

**L.H. 1. zikloa**

**Golosin kapitaña**

**"Irakurtzea gustatzen zait"**

# GOLOSIN KAPITAÑA

Bazen behin Kapitain bat Golosin izena zuena, txikia eta potoloa zen, txokolatezko itsasontzi batean bizi zen.





Altxor bat aurkitu zuen, oso berezia zen, gozokiz betetako altxorra.

Bere bidairantz abiatu zirenean oso maltzurra zen pirata batekin aurkitu ziren, pirata horren izena Karies zen, nahi zuen gozokiz betetako altxorra lapurtu.

Borrokan hasi ziren, baina azkenean Golosin Kapitaina izan zen irabazlea.

Jarraitu zuen bere bidaia eta etxera heldu zenean festa handi bat egin zuen, Gozoki guztiak banatuz eta ordutik aurrera pozik eta alai bizi izan ziren.



Eta kontuz golosinarekin bestela pirata Karies etorriko da.



Janire Urkaregi 2. maila



## ANDER BARANDIKA URRUTIA

**L.H. 1. zikloa**

**Baso iluna**

**“Niri nagusitan astronomoa izatea gustatuko litzaidake”**

### Baso iluna

Banilla eta Piler basoko etxe zahar batean bizi ziren. Baso honetara sorginak eta euren saguzaharrak etorri ziren. Haien artean sorgin txar - txar bat zegoen, oso beldurgarria.

Banilla eta Piler txiki-txikiak zirenez lore artetik saltoka eta bertsoka ibiltzen ziren.

Hau ikusita, sorgin gaiztoak hau esan zuen:

Ume hien atzetik joango naiz eta nire arantza pozointsua

sartuz, zoraliatuko ditut.
Beste sorgin onak hau entzun zutenean, umeak salbatzera joan ziren eta sorgin txarra euren taldetik kanporatu zuten.
Azkenean, denak elkarrekin basoan poz - pozik bizi ziren.





## PAÚL ABERASTURI AKAITURRI

**L.H. 1. zikloa**

**Mikelen abenturak**

**"Bizikletan ibiltzea asko gustatzen zait eta handitan arkitektoa izatea gustatuko litzaidake".**

Mikelen abenturak

Bazen behin zazpi urteko mutiko bat Mikel zuena izena. Oporretan zegoela abentura harrigarria gertatu zitzaion. Mendira abiatu zenean txakur txiki bat topatu zuen harri baten ondoan. Lani deitzea erabaki zuen eta korrika hasi zen bere familiari erakusteko. Orduan norbaitek lepotik harrapatu zuela igarri zuen. Putre ikaragarria zen eta Mikel eta Lani bere hatzapar erraldoietan hegan eraman zituen Kobazulora. Mikel negarrez eta ilundan paratu zuen gau osoa. Biharamunean egunaren argiarekin putrea kobazuloan ez zegoela ikusi zuen eta ihes egitea pentsatu zuen. Baina kobazuloa mendi tontorrean zegoen. Mikel mutiko azkarra zenez, makila eta tela batzuekin hego bi egin zituen eta Lani bizkarrean

hartuz salto egin eta hegaz hasi zen. Azkenean erreka batera jausi zen eta korronteak Gernikako errekaraino ekarri zuen. Mikel uretatik irten zenean bere familia eta eskolako ume guztiak han topatu zituen, berari itxaroten txaloka pozaren-pozez.

Inoiz ez zuen ahaztuko momentu hura.
Gainera Lani du oroigarritzat.



Paul Aberasturi
Akaiturri



AITOR ARRIOLA ORIOSOLO
ASIER GORDO BADIOLA

**L.H. 2. zikloa**

## Piramidean galduta

**"Kirola gustatzen zait"**
**"Karatea gustuko dut"**

### Piramidean galduta

Orain dela asko, Egipton bazen faraoi bat beti zihoala piramidera. Egun batean, galdu egin zen piramidean, eta hilda zegoela pentsatu zuten.

Orduan, bere semea piramidean sartu zen, ez zuelako sinisten bere aita hilda zegoela.







Barrura sartu zenean, lehenengo ikusi zuena hieroglifikoak izan ziren. Aurrera jarraitu ahala, argia ikusi zuen, eta bere aitaren argia zela pentsatu zuen. Aurrean zegoenean...



Sugeak ziren! Eskerrak sua zuela suge haiek izutzeko! Bidea jarraituz, gauza harrigarri bat ikusi zuen... Momia bat ibiltzen!



Itsua zen eta ezin izan zuen ikusi faraoiaren semea. Eta momia bere suaz kiskali egin zuen. Jarraitu eta, laberinto luze eta beldurgarri batean sartu zen.



Pentsatu zuen bere aita laberinto horretan egongo zela. Hiru bide zeuden ordea. Ezkerrekoari amaiera ikusi zion, aurrekoan momia batzuk zeuden, eta eskuinekoan aita ikusi zuen.

Handik aurrera ez zen joan berriro piramidera.




## LEIRE OLAETA ZUBIAGA
## ANE OBIETA SALEGI

### L.H. 2. zikloa

### Altxor ezkutua

**“Pianoa jotzea gustatzen zait”**
**“Ipuinak irakurtzea gustatzen zait”**

Altxor ezkutua

Bazien behin bi lagun, Julen eta Naroa, deitzen zirenak; egun batean aspertuta zeudela egurrezko etxe bat, hasi ziren egiten.



Bat-batean olatu bat etorri, eta itsasoan zehar galdu egin ziren. Handik kilometro batzuetara itsasontzi-pirata bat agertu zen, eta Julen eta Naroa bahitu zituzten, hau esan zien:

-Altxor baten bila bidaliko zaituztet, eta ez baduzue aurkitzen, marrazoen janaria izango zarete.

Horregatik ilargi betean joango gara altxorraren bila; beraz, hau da altxorra aurkitzeko mapa:

Altxorraren mapa →



Palak eman eta hondartza utzi zituzten biak.

Julen eta Naroak aurkitu zuten non kokatzen zen altxorra eta; hau bai harrigarrikoa! Beraiek egin zuten egunerako etxearen azpian zegoen!

Julenek ez zuen nahi altxorra eman piratei.

Orduan beste altxor-kutxa bat egin zuen eta harez eta harriz bete zuen. Benetako altxorra ezkutatu eta beste mapa bat (faltsua, noski) egin zuten. Oso pozik zeuden altxorra aurkitu zutelako, baina asko arduratzen ziren piraten itzuleraz. Egun bat falta zen



piratak itzultzeko. Baina ez ziren etortzen altxorraren bila eta Julen eta Naroa oso pozik zeuden.

Halako batean botila bat heldu zen mezu batekin. Hau jartzen zuen:




Irakurri zutenean oso pozik ziren. Azkenean dena konpondu zen. Altxorra guretzat! Esan zuten.

Eta handik egun batzuetara,... bueno-bueno hau beste istorio bat da.

Egileak: Ane eta Leire

Idazlea: Ane

Marrazkilaria: Leire





## UXUE LEJARZEGI URKIZA

### L.H. 2. zikloa

### Lorito berria

**"Gogozko tokian aldaparik ez"**



LORITO BERBATIA

Herri txiki batean zortzi urteko neska bat bizi zen; laister bederatzi urte betetzeko zegoenez, bere gurasoek zer nahi zuen bere urtebetetzerako galdetu zioten. Bera, auzo horretako neska bakarra zenez eta ordi bakarrik jolasten zenez, animalia bat eskatzea bururatu zitzaion.

Igandean, ohetik altxatu zenean kartoizko kutxa bat ikusi zuen logelako algonbraren gainean. Ohetik salto handia emanda kutxa zabaldu zuen, eta sorpresa!!... Kaiola bateen barruan "Kolorinetako loro berbati bat" zegoen. Handik aurrera arratsalde guztiak elkarrekin egoten ziren, kantatzen, berba egiten, eta abar...

Bitartean, herriko txoriak konturatu ziren, etxe hartan loro bat zegoela. Askotan neskaren logelako leihoan



begiratzen gelditzen ziren loroak neskari abenturak kontatzen zizkion bitartean, bertan orduak ematen zituzten entzuten. Egun batean kaiolako atea cabaldu zuenean loritoari ura jartzeko nahian, herriko argia joan egin zen. Ez zuen ezer ere ikusten. Argia noiz etorriko zen itxaroten lo gelditu zen. Hurrengo goizean,



jaiki zenean loritoaren-gana abiatu zen eta harrituta geratu zen ikusirik kaiolako atea zabalik zegoela eta loritoa galta zela. Leihora hurbildu zenean era desberdinetako lumak aurkitu zituen, bai loritoarenak eta baita ere beste txori batzuenak. Orduan konturatu zen berak ere bazituela ikastolako lagunak eta behar bada loritoak ere bere lagunak nahi izango zituela pozik bizitzeko, eta beraiekin joango zela. Loritoa, bere lagunekin basoan bizitzen ohitu egin zen baina hala eta guztiz ere txoritxo batek esan dit neguan hegoalderantz joaten dela senideak bisitatzera.

Uxue Lejarcegui



## MIREN INTXAUSTI EREÑO

**L.H. 2. zikloa**

# Tximinia

**“Txikitan andereñoa izan nahi nuen, baina orain saskibaloiko entrenatzailea izan nahi dut”**

Tximinia

Bazen behin Judith izeneko neska bat. Roman bizi zena. Roman negua zen hotz handia egiten zuen. Egun batean Judith etxean zegoen, hotzak zegoen eta tximinia piztu nahi zuen. Argia piztu zuen, paperak hartu eta sua egitea lortu zuen baina norbaitek ura botatzen zuen goitik. Judith-ek, hori ikusita tximinian igoten hasi zen. Kostatu zitzaion baina igo zen. Tximiniaren puntara heldu zenean gauza arrigarri bat ikusi zuen eta esan zuen:

—Uau! zenbat jostailu! Hau Papa Noelen fabrika da!

— eta Papa Noel hurbildu zitzaion.

—Nor zara zu?

—Ni Judith naiz.

—Eta nondik zatoz?

—Romatik. Zu Papa Noel zara ezta?

—Bai. Zer eskatuko didazu Eguberrietarako?

—Panpin bat.

—Laster dator gabon gau eguna.

—Bai, eta irrikitan nago.

—Ez dakit opariak banatu ahal izango ditudan.

—Zergatik?

—Orain bat gaixorik daukat. Eta ez dakit zer egin.

—Sendagileari deituko diogu.

—Ez, ezin diogu deitu, ezin du inork toki hau aurkitu. bestela nire sekretua denek jakingo dute. Badakit, lagun bateri deituko diot sendagilea da.

Handik ordu batera sendagilea etorri zen.

—Kaixo, Papa Noel.

—Kaixo bai.

—Nor da neska hori?

Galdetu zuen sendagileak.

—A, Judith da! Lasai nire laguna da.

—Zer gertatu da nire beharra izateko?

—Orain bat gaixorik daukat eta ez dakit zer duen.

—Ongi, utzidazu ikusten

—Ongi da. Orain handik tripako minak daukala eta sendabelarra hemendik urrun dago.

-Neu joango naiz.
-Ongi zuk nahi badozu.
-Handik 3 egunera Judith etorri zen, sendabedarra aitonari emon eta gabon gauean ume guztiek opariak izan zituzten. Baita Judithek ere.





## MADDALEN OMAETXEBARRIA LANDA

**L.H. 2. zikloa**

**Ipuin lehiaketa**

**“Niri irakurtzea eta margotzea asko gustatzen zait”**

# IPUIN LEHIAKETA

Bazen behin Lumo izeneko herri bat. Bertako eskolak ipuin lehiaketa bat antolatu zuen. Ipuin lehiaketa hartan parte hartu zuen neskato batek Elena zuen izena. Elenek ez zekien zer buruz egin ipuin hura. Eta pentsatu zuen herriko landa-tara irtetea ideiak hartzeko.



Bat-batean mila arbolaz inguratuta aurkitu zen.
GALDUTA ZEGOEN!!! Harri baten gainean jesarri eta negarrez hasi zen. Baina iruditu zitzaion hots batzuk entzun zituela. Alde guztietara begiratu eta momentu hartantxe oilo baten antzekoa zen animalia berbati bat aurkitu zuen. Elena harriturik gelditu eta gorabiatu egin zen. Esnatu zenean animalia arraroz inguratuta aurkitu zen.
-Lasai zaitez, zure lagunak gara eta.- esan zion lehengo oiloak.
-Non nago? Eta zer egiten dut hemen?- galdetu zien Elenak.
-Begira, gauza bat egingo dugu; etorri zaitez gurekin jolastera eta dena pasatuko

zaizu.- erantzun zioten.
Haiekin jolastu zuen denbora guztian, oso pozik zegoen Elene. Gauza askotara jolastu zuten: ezkutaketara, soka saltora, harrapatzera... eta abar. Bat-batean soinu arraro bat entzun zuen; RANTANPLAN!!! Elene bere gelan zegoen aulkitik erorita arkatza eskuan zuela. Orduantxe konturatu zen Elene gertatu zitzaion dena amets bat besterik ez zela izan. Arkatza eta papera hartu eta gertatu zitzaion dena idazten hasi zen.

Maddalen O.





## AMAIA GEREKIZ ASTEINZA

**L.H. 2. zikloa**

## Lena zapata garbitzailea

**“Irakurtzea gustoko dut baita ere marraztea”**

# LENA ZAPATA GARBITZAILEA

Urrutiko herri batean bazen neska bat Lena deitzen zena. Bederatzi urte zituen eta bere gurasoak istripu batean hil zirenez bere amona eta neba txikiarekin bizi zen.

Oso pobreak ziren eta Lenak eskolara joateaz gain diru apur bat irabazteko zapatak garbitzen egiten zuen lan.



Egun batean Lena gaixotu egin zen eta etxean geratu behar izan zuen. Egun asko pasatu eta ez zen sendatzen. Hainbeste egunetan lanera joan barik ez zuten dirurik janaria eta sendagaiak ordaintzeko eta Lena hiltzorian zegoen.

Orduan herriko jendea elkartu egin zen eta dirua jarri zuten Lenaren familiari laguntzeko, janaria erosi eta sendagaiak ordaintzeko.

Azkenean Lena sendatu zen eta herrian festa bat antolatu zuten ospatzeko.

Lena berriro eskolara eta lanera itzuli zen.

Egun batean gizon bat zapatak garbitzera joan zen eta maleta bat utzi zuen ahaztuta. Lena bere atzean joan zen maleta itzultzeko baina ezin izan zuen gizona harrapatu kotxe handi batean alde egin zuelako.

Lenak ez zekien maletarekin zer egin, eta berarekin etxera eraman zuen. Egun batzuk pasatu ziren eta gizona ez zen agertzen maletaren bila. Azkenean Lenak maleta irekitzea erabaki zuen. Maletaren barruan izugarrizko diru multzoa zegoen eta baita gutun bat gizonaren helbidearekin. Lenak gehiago pentsatu gabe gizonaren etxera hurbildu zen maleta itzultzera.

Gizonaren etxea oso handia zen. Atera heldu zenean tirrina jo zuen eta etxeko zerbitzariak ireki zion atea. Jabeagatik galdetu zuen eta zerbitzariak gela polit batera sartu eta bertan itxaroteko esan zion.

Momentu bat pasa ondoren gizona gertu zen eta Lena maletarekin ikusi zuenean harrituta gelditu zen bere zintzotasunarekin. Biak denbora asko egin zuten hizketan eta Lenak bere bizimodua kontatu zion.

Gizona oso aberatsa zen eta Lenak egindakoa saritzeko etxe berri bat erosi zion eta bere ikasketak ordaindu zizkion. Gehiago ez zuen zapatak garbitzen lanik egin behar.

Egilea: Amaia Garukiz
4. maila



## JOSEBA ARÉVALO GANDARIAS

**L.H. 2. zikloa**

**Arraunlariak itxasoan**

**“Traineruko patroia izatea gustatuko litzaidake”**

Arraunlariak itxasoan

Bazen behin Kostaldeko herri bat, Elantxobe izenekoa
Arraun elkarte bat zeukana. Bertan herriko eta
Inguruko umeak pozik ibiltzen ziren arraunean.
Neguko gau batean eguraldia kaskarta egin zen
itxasoa ere oso haserre zegoen eta olatuak oso handiak
Ziren portu barruraino sartuz. Ekaitzaren indarrak
Arraun elkarteko atea apurtu zuen eta itxasoa
barrura sartu zen. Batelak eta trainera denderak
apurtu ziren. Hurrengo egunean, beti bezala umeak
entrenamendura joan zirenean harrituta gelditu ziren.
Dena zegoen lekutik kanpo, dena zegoen apurtuta.
Oso triste ipini ziren. Orain zer egingo dugu? pentsatzen zuten.
Ezin dugu arraunik egin.
Egunak joan eta egunak etorri ez zuten irtenbiderik
aurkitzen. Goiz batean lagun guztiak, Portuan egozela
botila bat ikusi zuten uretan. Joselek uretara salto egin
eta eskuratu zuen. Jolas berezi baten arautegia
Zegoen idatzita barruan.

Gurasoa eta herriko jendearen laguntzarekin publikatu zuten eta lortutako diruarekin konpontzea lortu zuten. Ospatzeko jai erraldoi bat antolatu zen eta aurrerantzean arraunean entrenamenduak egiten jarraitu zuten herriko ume eta gazteak.

Joseba Arevalo





## HODEI GABIOLA ARANGÜENA

**L.H. 2. zikloa**

**Perretxikoen herria**

**"Futbolari famatua izatea gura neuke"**




Bazen behin Perretxiko izeneko herri polit eta eder bat. Herri hartako jendea oso txikia eta alaia zen. Herrian eskola, eliza, dendak... zeuden. Bi biki bizi ziren perretxiko eder batean; Izaro eta Mikel ziren. Oso alaiak eta bihurriak ziren, horrexegatik bere gurasoak beti ibiltzen ziren beraien atzetik. Eskolara joatea ez zitzaien asko gustatzen, baina basora eta mendira joatea animalitxoekin jolastea, bai ordea. Lagunak ere, asko zituzten. Denak oso pozik bizi ziren herrian.

Mikelek eta Izarok arratsalde baten basora joatea erabaki zuten. Saltoka eta korrika goitik behera hasi ziren. Bat-batean animalia txiki bat laguntza eskatzen ikusi zuten, urtxintxa bat zen. Gero, etxera eraman zuten hanka batean zauri bat zuelako. Etxean zauria sendatu zioten eta ume biak oso pozik jarri ziren.

Ondoren, herriko zoora eraman zuten aitaren autoan. Han, hainbat animalia ezberdin zeuden eta denak oso pozik bizi ziren. Urtxintxak, bertan, beste urtxintxa polit bat topatu zuen eta berehala oso lagun egin ziren. Unne biak ia egunero zoora bisi tatzera joaten ziren.

Handik aurrera, Mikel, Izaro eta urtxintxa oso alai bizi ziren Penedakoen herri eder hartan.

Hodei Gabiola Aranguena

2. zikloa





# CARLOS ISLA MARAÑON

## L.H. 2. zikloa

## Arratoia eta lehoia

**"Kirola egitea gustuko dut eta futbolzalea naiz"**

### Arratoia eta lehoia

Bazen behin arratoi txikitxo eta dixdiratsu bat. Jonatan deitzen zen eta portuko etxe zahar-zaharretan bizi zen. Jonatanek gustoko zuen portutik eta itsasontzietatik paseotxoak ematea.



Egunero, bere buztan luzearekin kaleak ziztu bizian zeharkatzen zituen. Jendea ikusi ahala, zanbo! salto egin eta itsasontzietara sartzen zen. Itsasontzietan jolastu ezezik, janari hondakinak ere, bilatzen zituen.

Egun eguzkitsu batean, itsasontzi barruan lasai-lasai zegoen. Gorantz begiratu zuenean, ikurrina zerura ikusirik ideia hau bururatu zitzaion:

-Ikurrina dagoen tokiraino igoko naiz eta... bertatik itsasoa zehatz-mehatz behatuko dut.

Igotzen zihoala, fiu-fiu! haize bolada batek jota, arratoitxoak kordela ezin izan zuenez harrapatu, plausta! jausi egin zen.

Esnatu zenean, itsasontzia itsaso erdian zegoen. Ez zuen ezer ulertzen. Itsasontziak mugitzen jarraitzen zuenez, beldurtuta zegoen. Orduan, itsasontziaren beheko solairura joatea erabaki zuen.

-Hau pena! esan zion bere buruari.

-Hemen, kaioletan animaliak daude.

Gainera, animalia guztien erregea zen lehoi jauna ere, bertan zegoen.

Orduan, hain animalia luze handi-handia ikustean, erabat beldurturik zera esan zuen:

–Zer–nergatik zaudete hemen?
–Larai laguntxo! Zoo batera goordalako–erantzun zion lehoi jaunak.
Hori entzutean, Jonatan negarrez hasi zen.
–¡Hemen negarrik ez gero!–esan zion erregeak.
Berehala JonatanneK:
–Bakar–bakarrik nago eta ezin naiz nire etxera itzuli.
Orduan, lehoiak penaz honela erantzun zion:
–Nahi izanez gero, biok elkarrekin biziko gara.
Azkenik Jonatan animalia guztiekin poz–pozik zooan bizi zen.

Carlos Isla





## AMAIA ASLA URRUTIA

**L.H. 2. zikloa**

**Elurretako inuita**

**"Gimnasia erritmikoa egitea gustatzen zait"**

# ELURRETAKO INUITA

Bazen behin Groenlandiako herri txiki batean eskiatzaile trebe bat. Philip zuen izena. Egun elurtsu batean eskiatzera joatea burutatu zitzaion. Eskiatzen zegoela BRUM! BRUM! burrunba handi bat entzun zen.



Elur jausia zen!

Philipek ezin izan zuen korrikarik egin, zeren eta burrunba entzun zuenerako elurra gainean zuen.

–Lagundu! Lagundu!

Oihukatzen zuen Philipek, baina ez zion inork entzuten. Eski pistak utsik zeuden. Orduak eta orduak eman zituen elur azpian. Philipek elurra zulatzeari ekin zion. Arnas falta zuen baina kanpora bizirik irten zen, hori bai, elurrez estalita. Philipek ezin zuen elurra bere gorputz gainetik kendu, horregaitik bere gorputzeko atalak sentitzen ez zituenez, korrika egitea onena zela pentsatu zuen. Baina zein norabide hartu? Galdurik zegoen. Eskumara, ezkerrera, aurrera, atzera, ez zekien nora jo. Gauza bat argi zuen, laguntzaren bila abiatu behar zela. Ezkerreko bidea hartu zuen eta

ordu batzuk igaro ondoren, jendez gainezka zegoen pista batera heldu zen. Han eskiatzaile batzuengana hurbilduz, zera galdetu zien:
—Norbaitek lagundu al dit elur zati hau nire gainetik kentzen?



Baina denek ezer esan baino lehen ihes egin zuten elurretako mamua ote den beldurrez. Pista erdirantza hurbiltzen ari zela jende arteko astrapalada izugarria sortu zen, eskiatzaileek ez zekitelako zein norabidetan alde egin.
Philipek ez zekien zer gertatzen zen. Azkenik eski estazioko taberna ikusi zuen. Bertara sartu zen eta barruko tenperaturari esker elur guztia urtu zitzaion bere betiko itxurara bueltatuz. Hala ere, ordutik aurrera, Philip beti izango zen "elurretako iruña"
Hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta irten dadila Errenteriko geuretzean.